# CARITASEN KANPAINA

2016.eko ABENDUAren 18a

## ABENDU ALDIKO IV. DOMEKEA (A)

"Bat egin, bat izan"

# *"Bizitzeko onena ELKARREKIN egiten dugu"*

***Liturgi lagungarriak***

**Atarikoak:**

- *Gogoratu, Liturgi lagungarri honeek alkarte bakotxaren inguruabarretara egokitzea ezinbestekoa dala gogoratu gurako geunke. Horretarako, Caritasetik bialtzen diran materialak irakurtea komeni da.*
- *Egokia da kartelak sasoiz ipintea eta aurreko domekan jardunaldia iragartea.*
- *Ondo legoke parrokiako Caritaseko bolutarioek gaurko ospakizunetan buru-belarri jardutea.*
- *Jardunaldi eta kolekten ospakizunerako emondako jarraibideak errespetatuz, gaurkoa sarrerako oharrean, Jaungoikoaren herriaren otoitzean eta diru-batzearen aurreko oharrean aitatuko dogu.*
- *Homiliaren oinarria, beti lez, hots egindako Jaungoikoaren Hitza izango da. Kanpaina egokitasunez aurkezteko eta txertatzeko, irakurri, arren, Caritasek bialtzen dituan lagungarriak.*

### SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok:

Gabonak atarian doguz. Abendu aldiko azken domeka honetan, Maria itxaropenaren Amabirjinari begiratzeko esaten jaku. Berak irakatsiko deusku Jaungoikoari entzuten, Beragaz egoten eta Berari harrera eginez.

Caritasen kanpaina ospatzen dogu gaur, alkarlana, bizitzarako aberastasuna goiburupean. Dagoeneko benetako jarraibide diran balioak galdu egin doguzala nabarmendu gura da, kontsumismoa, indibidualismoa eta ekonomia sistema baztertzailea erabat nagusitu diralako. Alkarlanean jardunez baino ezin dogu eraikitzaile izan. Gauzak aldatuko eta hobetuko badira, eskuz esku, alkarri ekarpena eginez jardun behar dogu.

Emon deiogun hasiera Hitzaren eta Eukaristiaren ogiaren indarra emongo deuskun ospakizunari.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

18 de DICIEMBRE de 2016

## IV DOMINGO DE ADVIENTO (A)

"Construyendo bien común"

# *"Las mejores cosas de la vida se construyen EN COMÚN"*

***Subsidios litúrgicos***

**Notas previas:**

- *Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten a las circunstancias de cada comunidad. Para ello es muy conveniente leer los materiales que se envían desde Cáritas.*
- *Es muy oportuno poner los carteles con tiempo y avisar de la Jornada el domingo anterior.*
- *Estaría bien que el voluntariado de Cáritas de la parroquia participara activamente en las celebraciones de hoy.*
- *Respetando las orientaciones dadas para la celebración de las Jornadas y colectas, hacemos mención de la de hoy en la monición inicial, en la oración de los fieles y en la monición que motiva la colecta.*
- *La homilía se basará, como de ordinario, en la palabra de Dios proclamada. Para la oportuna aplicación y referencia a la Campaña sugerimos la lectura de los materiales que Cáritas envía.*

### MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos:

Estamos a las puertas de la Navidad. Este último domingo de Adviento nos invita a fijarnos en María, la Virgen de la esperanza. Ella nos enseñará a escuchar a Dios, a estar con Él, a amarlo y a recibirlo.

Cáritas se acerca a nosotros este domingo con este mensaje: "Las mejores cosas de la vida se construyen en común", colaborando. Queremos remarcar que estamos perdiendo la referencia de los valores que son de verdad porque nos estamos dejando llevar por el consumismo, el individualismo, un sistema económico que excluye. Sólo trabajando entre todas las personas podremos construir las cosas. Las cosas cambiarán y mejorarán cuando trabajemos de la mano y aportando.

Iniciamos la celebración en la que recibiremos la fuerza del pan de la Palabra y de la Eucaristía.



→

→

## SARRERAKO ABESTIA

Abestuz ekingo deutsagu ospakizunari...

## ABADEAREN AGURRA

Gu salbatzera datorren Jauna, zuekin.

## DAMU OTOITZA

Laugarren kandelea biztean, Ama Mariagan pentsatuko dogu. Ez dau sekula inork berak besteko irrika eta maitasunez itxaron. Maitasunean eta zuzentasunean prestatu gura dogu geure burua. Horreekaz, gizarte gizatiarrago eta gizatiartzaileagoa egin daikegu danon artean.

***—Laugarren kandelea biztu abesti egokiren bat kantatzen dan bitartean eta, ondoren, esan:***

- Ilunpetan bizi diranen artean argi egitera zatozan munduaren Argia:
  *Erruki, Jauna*
- Zure herria egia eta zuzentasunaren bideetatik zuzentzera zatozan gizadiaren gida:
  *Kristo, erruki.*
- Gure makaltasunaren zauriak osatzera zatozan Bizi-iturria: *Erruki, Jauna*

## OHARRA 1. IRAKURGAIARI (Is 7, 10-14)

Isaias profetak ustekabeko zeinua iragarten dau: bere herria salbatzera etorriko dan Emmanuelen zeinua.

## OHARRA 2. IRAKURGAIARI (Erm 1, 1-7)

Haragian jaioten diran izatasun gogorraren menpeko giza leinuaren ondorengo apal lez jaio Jaungoikoaren Semea. Barri On honen ministro gara guztiok.

## OHARRA EBANJELIOARI (Mt 1, 18-24)

Jaungoikoaren Semea geure haragiko jaiotean, Jaungoikoa-gugaz da. Mariak bere sabelean daroan izakia Espiritu Santuagandik dator, Jesus –Jaunak salbatu egiten dau- deituko da eta Josek semetzat hartuko dau jainkozko aukeraketari erantzunez.

## CANTO DE ENTRADA

Iniciamos la celebración unidos en el canto.

## SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que viene a salvarnos,
esté con todos vosotros.

## GESTO DE LA CORONA Y ACTO PENITENCIAL

Al encender hoy la cuarta vela, pensamos en María, la Madre. Nadie esperó con más ansia y amor. Nosotros queremos prepararnos así: En la fraternidad y en el compromiso, dos valores con los que podemos hacer entre todos una sociedad más humana y más humanizadora.

***—Se enciende el cuarto cirio y puede cantarse un canto adecuado. A continuación, se dice:***

- Luz del mundo, que vienes a iluminar a quienes viven en tinieblas:
  *Señor, ten piedad.*
- Guía de la humanidad, que quieres abrir a tu pueblo sendas de justicia:
  *Cristo, ten piedad.*
- Fuente de vida, que vienes a curar las heridas de nuestra debilidad:
  *Señor, ten piedad.*

## MONICIÓN a la 1ª LECTURA (Is 7, 10-14)

El profeta Isaías anuncia un signo inesperado: el signo del Emmanuel que vendrá a salvar a su pueblo.

## MONICIÓN a la 2ª LECTURA (Rm 1, 1-7)

El Hijo de Dios nace como un humilde descendiente de una estirpe humana, sometido a la dura condición de quienes nacen en la carne. Esta es la Buena Noticia de la que todos somos ministros.

## MONICIÓN al EVANGELIO (Mt 1, 18-24)

Por el nacimiento del Hijo de Dios en nuestra carne tenemos a Dios-con-nosotros. La criatura que hay en María viene del Espíritu Santo, se llamará Jesús *—El Señor salva—* y José lo adoptará respondiendo así a la elección divina.

## JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Bat egin daigun otoitzean, Jaungoikoaren Semeak gizadi osoaren bidea barritu daian:

- Eleizaren alde; harrera egitea, txertatzea, alkarbanatzea eta bizikidetza oinarritzat dituen senidetasuna ezaugarri nagusitzat dauan alkarte izan daiten.
*Eskatu deiogun Jaunari.*

- Caritasen alde; bertan alkarlanean dabilzanek, hitzez eta egitez, itxaropena zabaldu daien. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Agintarien alde; batez be baztertuen aldeko zerbitzu eta eskaintzazko eredu izan daitezan, danontzako lekua dauan gizartea eraiki ahal izateko. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Gu guztion alde; *gure* gizarte hau bizigarri egiteko alkartean jardun behar dogula konturatu gaitezan. *Eskatu deiogun Jaunari.*

Jaungoiko Jauna, entzun gure otoitza eta, Mariaren antzera, geuk be entzun daigula zure hitza eta esaneko izan gaitezala fedean.
*Jesukristo gure Jaunaren bitartez.*

## OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Caritasek, salaketaren, sentsibilizazinoaren eta pobretasunaren aurkako burrukaren bitartez, pobretasunez eta gizarte bazterketaz jantzitako egoerei erantzuna emon gura deutse, gizon eta emakume guztien osoko garapena ahalbideratuz. Bizkaian, bi mila eta laurehun boluntarioren doako konpromisoari esker, Caritasen jarduerak itxaropena eta gizarte eraldaketa dakarren zeinuak dira.

Gaur batzen dan dirua **Elizbarrutiko Caritas**en esku itziko da Onuradun izango diran guztien izenean, **ESKERRIK ASKO** eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.

## ORACIÓN UNIVERSAL

Unámonos en la oración para que el Hijo de Dios renueve el camino de la humanidad entera:

- Para que la Iglesia sea siempre comunidad cuyo distintivo es la fraternidad que acoge, integra, comparte y convive.
*Roguemos al Señor.*

- Para que Cáritas y quienes colaboran con ella, con sus acciones y palabras, hagan que todos encuentren un motivo para seguir esperando. *Roguemos al Señor.*

- Para que quienes tienen poder en el mundo sean modelo de servicio y entrega, especialmente a los excluidos y así sea posible una sociedad donde cuenten todas las personas.
*Roguemos al Señor.*

- Para que todos nosotros seamos conscientes de que el único modo de hacer habitable la sociedad en que vivimos es hacerlo en comunidad. *Roguemos al Señor.*

Señor Dios, escucha nuestras plegarias, y haz que, como María, también nosotros sepamos escuchar tu palabra y obedecer a la fe...
*Por Jesucristo, nuestro Señor.*

## MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

La acción de Cáritas consiste en dar respuesta a las realidades de pobreza y exclusión social de nuestra sociedad a través de la denuncia, la sensibilización y la lucha contra la pobreza, favoreciendo el desarrollo integral de todas las personas. Gracias al compromiso gratuito de más de 2.400 personas voluntarias en Bizkaia, las acciones de Cáritas son un signo de esperanza y transformación de nuestra sociedad.

La colecta de hoy será destinada a **Cáritas Diocesana**. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, gracias a todos por vuestra generosidad, **GRACIAS** por vuestra generosidad.



→

→

## HAUSNARKETA

**Behartsuen Jaungoikoa,**
**lagundu eiguzu zuretzat kutunenak diran**
**mundu honetako baztertuak**
**eta ahaztuak askatzen.**

**Maitasunaren Jaungoikoa,**
**erakutsi eiguzu mundu honetan dogun lekua,**
**lur honetako izaki guztien aldeko**
**zure maitasunaren tresna lez.**

**Jaungoiko errukitsua,**
**emoiguzu zure parkamena jasoteko**
**eta guztion etxe honetan**
**zure errukia zabaltzeko grazia.**

**Gora, zu, Jauna!**
**Amen.**

***Papa Francisco***
*Kreazinoa zaintzearen aldeko Munduko Otoitz Jardunaldirako mezua*
*2016.eko irailaren 1a*

## REFLEXIÓN

**Oh, Dios de los pobres,**
**ayúdanos a rescatar a los abandonados**
**y a los olvidados de esta tierra**
**que son tan valiosos a tus ojos.**

**Dios de amor,**
**muéstranos nuestro lugar en este mundo**
**como instrumentos de tu cariño**
**por todos los seres de esta tierra.**

**Dios de Misericordia,**
**concédenos recibir tu perdón**
**y de transmitir tu misericordia**
**en toda nuestra casa común.**

**Alabado seas.**
**Amén.**

***Papa Francisco***
*Mensaje para la Jornada Mundial de Oración por el Cuidado de la Creación*
*1 de septiembre de 2016*




